# FORMAKUNTZAN DAUDEN IKERTZAILEAK EHUn KONTRATATZEKO 2026-I EZOHIKO DEIALDIA, IKERTALDE EDO IKERKETA PROIEKTU BATEN FUNTSEKIN FINANTZATURIK

## *Behin betiko ebazpen-proposamena*

Alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak (IAE) Ikerketako erréktoreordeari diru-laguntzak emateko behin betiko ebazpen-proposamena igorri dio. Epe hori igaro ondoren, IAEk

**ERABAKI DU**

**Kontratazioa emateko edo ukatzeko Behin betiko Ebazpen-Proposamena.** IAEren web-orrian argitaratu da, eta argitalpen horrek interesdunei jakinarazteko balio du.

Nolanahi ere, edozein kontratu eman ahal izateko, onuraduna eskabidean adierazitako EHUko doktorego programan onartu eta matrikulatu beharko da.

Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta **honako bide hauek daude beraren kontra egiteko**, baina inola ere aldi berean erabilita:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

   Administrazio errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsoa isiltasun negatiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

   Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsitzat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikuluak).

Leioan, 2026ko irailaren 11n.

**Ikertzaileen Kontratazio eta Prestakuntzarako Baliabideen Gestioaren Atala**

**IKERKETA ERREKTOREORDETZA**

# Behin betiko  ebazpen-proposamena

| Kodea.<br>I. Eranskina | NAN/AIZ/<br>PASAPORTEA | BEHIN BETIKO EBAZPENA |
|---|---|---|
| **PIFG26-07** | 734***50H | Esleitua |
| **PIFG26-07** | BE6***53 | Ukatua |
| **PIFG26-07** | U52**30 | 1. erreserba |
| **PIFG26-15** | Y25***27D | Esleitua |